

SIGLA ETA AKRONIMOEN ERABILERA ETA AGERTZE- MAIZTASUNA EUSKARAZKO PRENTSAREN PRAXIAN

Jakobe PALAZIO ARKO-ARTATZA

Kazetaritza Saila. EHU

1. Kazetagintzako laburtzapenak

Hitz-laburtzapen mota desberdinei erreparatuz, lehenbizi, esan beharra dago akronimoak eta laburketa batzuk onartu egiten direla prentsa idatzian; idatzi idatz daitezke. Laburkinen artean, bestalde, esan dezaket laburdura gehientsuak, baita sinboloak ere ezin idatz daitezkeela; siglak, ostera, arau batzuk gordez erabil egin ditzakegu. Hau prentsa idatziari dagokionez, ikusentzunezkoetan alde nabaria baitago. Beraz, artikulua honetan, aipatu berri ditugun aldakiak izan behar ditugu gogoan; alde batetik, kazetagintza motak (ikusentzunezkoak eta prentsa idatzia), eta bestetik, laburtzapen motak (ahozkoak direnak: laburketak eta akronimoak; laburkin grafikoak: siglak, laburdurak eta sinboloak).

Siglei esker albisteen idazkuntza erraz daitekeen arren, ez dezagun ahantz siglek oztupoak ipini ahal dizkigutela mezuak edo esangurak ulertzeko orduan. Siglek ez garamatzate zuzenean albistea den gertaerara, baizik eta informazio denari erreferentzia egiten dioten terminoetara. Hortaz, siglak errealitatezko zeinu batzuen ordezkotara, informazioaren jasotzea azkarragotu ahal dutenak.

Dena dela, bada izan alde nabaririk prentsa idatzian eta ikusentzuteko komunikazioan siglak erabiltzeko moldeen artean. Lehenbizikoan, nahiko normala izaten da hasieran erakundearen izen osoa jartzea, beronen ondoan eta parentesi artean erakundearen sigla idazten delarik. Behin irakurleak siglaren esangura argiro ikusiz gero, testu horretan berriro agertzen bada erakundearen izena, sigla baino ez da erabiltzen, kazetariak hasieran ipini baitu aipaturiko sigla nondik datorren. Albistearen jasoleak, beraz, badaki begiak nora zuzendu izkutatukoaren berri izateko. Hau, prentsa idatziko siglei buruz esan daiteke, irratitelebistaren kasua, ordea, desberdina da.

Ikusentzuteko komunikabideen alorrean siglek beste tratamendu bat izan behar dute, ahozkotetasuna nagusitu egiten baita. Ikus-zeinuak desagertu egiten dira eta audio-oroiak egonkortetasuna galtzen duenez, hots, ikus-atzeranzkotetasunik ez dagoenez, erakundearen izenaren esangura osoa esaten da sigla ebaki gaberik. Hau, normalean, behin baino gehiagotan egiten da, eta behin baino gehiagotan ere errepikatzen dira termino guztiak entzuleak argi eta garbi deskodetu ahal izateko kazetariak esaten diona. Hortaz, irratitik emandako albiste bateko sigla, testuan behin baino gehiago agertuz gero, bere esangura emanez esaten da, operazio hau askotan egin daitekeelarik.

Bestaldetik, laburdurak eta sinboloak kazetagintzan ahalik eta gutxien erabiltzeko gomendioa egin behar dut. Laburkin hauek deszifragaitzak izan ohi baitira, hurrengo atalean ikusiko dugunez.

2. Laburkinen erabilera eta agertze-maiztasuna prentsa idatzian

Siglak, akronimoak eta laburdura siglatuak albisteen osagai arruntak bilakatu dira azken bi hamarkadetan.

Siglak eta akronimoak, laburdurekin gertatzen ez den bezala, edozein kazetatako orrietan ikus daitezke; arruntak dira eta zalantzarik gabe erran daiteke sigla hauetako batzuen arrakasta prentsan agertzetik datorrela.

Egun, badirudi laburkin hauen erabilera larregizkoa dena ezen usu erabiliak ez diren siglak ere agertzen baitira kazetetan.

Baina jo dezagun estilo-liburu prestigioso batera sigla eta akronimoen erabileraz zer esaten diguten jakitearren. Katalunian editatzen den La Vanguardia egunkariak aurrekoa aipatzeaz gain beste hiru arau hauek ere ematen ditu:

- a) Se escribirán siempre con todas las letras mayúsculas (a diferencia de los acrónimos, según queda indicado), juntas y sin separarlas con puntos (ONU, OCDE, CDS, PSOE, etc.)...
- b) La primera vez que se mencione un organismo, una institución, etcétera, se hará constar en las diversas informaciones el nombre completo (siempre en castellano o bien en catalán en su caso) y a continuación, entre paréntesis, las siglas correspondientes. En las referencias sucesivas que aparezcan en la misma información bastará con citar las siglas.
- c) De lo indicado en el párrafo anterior pueden exceptuarse ciertas siglas archiconocidas (URSS, ONU, OTAN, TVE, INI, BOE, CiU, PCE, etc.), aunque restringiendo al máximo estas excepciones¹.

Berehala soma daiteke b) atalean agertzen denak bidea libre uzten diola kazetariari laburkinak barra-barra ibiltzeko. Behin erakunde edo dena delakoaren izendapena argitu eta gero, kazetariarentzat zilegi da aurrerantzean siglak, akronimoak zein laburdurak jartzea.

Laburkinen agertze-maiztasuna handia ala txikia den ikertzeari interesgarri izan daiteke, inork gutxik egin baitu. Nik, laburkinen presentziaz zerbait gehiago jakiteko, kazeta-ale zenbaiten arakaketa diakronikoa egin nuen orain zenbait urte, ondorengo lerroetan azalduko dudana.

Lehenbizi, lagina 6 alek osatua zela esan beharra dago. Euskaldunon Egunkaria euskarazko kazeta hautatu nuen analisi hau egiteko bere garrantziaz jabeturik. Harturiko 6 aleak aste oso bati zagozkion: 1992ko martxoaren 24tik hil bereko 29rarte, asteartetik iganderarte, astelehenean ez baitute alerik kaleratzen.

Euskaldunon Egunkariak 32 orrialde ditu orotara, eta bertan agertzen diren laburkinak aztertzeke eta zenbatzeko eranskinean ikus daitekeen orrialde ereduaz baliatu naiz. Kazetako 5 informazio-osagai nagusitan zatitu nituen albiste guztiak:

- a) Titularrak; b) Azpitularrak; c) Leadak; d) Albiste-gorputzak; d) Infogramak.

Banaketa honetatik landa, egunkaria hiru parte eginez aztertu nuen:

¹ Libro de Redacción (La Vanguardia). Barcelona, 1986, 224. or.

- a) Lehen orrialdea
- b) Azken orrialdea
- c) Gainontzeko orrialdeak (barrukoak)

Azkeneko banaketa honen egiteari ontsa iritzi nion zeren lehen eta azken orrialdeek garrantzi berezia baitute. Harold Evans-ek dioskun bezala: "La portada... establece la identidad, el carácter y la frescura que pueda tener un periódico, según su título, su presentación y su contenido"². Lehen orrialdeko laburkinei buruzko datuak interesgarriak dirateke kazetari eta diseinugileak kontu handiz ibili ohi baitira orrialde honetako elementu eta informazioak ipintzerakoan. Azalarekin jazo bezala, azken orria ere aparte aztertua izaten da gero eta gehiagotan; eta honexegatik hain zuzen ere iruditu zait interesgarria azken orrialdeko datuak besteetarik berezita ateratzea; gainera aintzakotzat hartu nuen jende asko egunkaria atzetik irakurtzen hastea. Norbert Küpper-ek egindako ikerketa batetik ateratako datuak aipatuz, %20ko irakurle-kopurua dugu atzetik irakurtzen hasten dena³.

Nik egindako analisira itzuliz, zenbait orrialde eta atal ikerketatik landa geratu zirela esan beharra dago (iritzi artikulua dituzten orrialdeak, eskelak, iragarkiak karteldegia... albisterik ez dakarten orrialdeak hain zuzen ere).


Hortaz, albiste direnek osatzen dute nire *corpusa*, berean albisteek duten presentzia zein den xede daukadala.

Bestalde, honako erabaki hauek ere hartu behar izan nituen lana hobeto burutzeko:

- 1) Lehen orrialdeko flashak albiste gorputzetan sartu ditut.
- 2) Albiste-gorputzetan ondoko hauek sartzen dira: sumarioak, entresakak, tartekiak, zatidurak eta menu zutak.
- 3) Infogramak: azterturiko orrietako albisteetan agertzen direnak baino ez dira kontutan hartzen.
- 4) Argazkipekoak albiste-gorputzen barruan doaz.
- 5) Zeinuak ez ditut kontutan hartu (% eta & adibidez).
- 6) Gizaki-izenen laburdurak kontutan hartu ditut.

Ondoren, azterketak eman zituen emaitzak jarriko ditut titularrekin hasiz. Guztitara 111 titular laburkindun aurkitu nituen. Titular laburkingabeak, oster, 465. Beraz, honako portzentaia hauek atera ziren:

Titularretako laburkinak ez-errepikatua




Aurreko portzentaia hauek azterturiko orrialde guztietako titularretako laburkinak batuz (lehen eta azken orrialdeak barne) lortu dira. Eta ondoren, egindako hiru ataletan gertatu diren kopuruak jarriko ditut:

² EVANS, Harold. "Diseño y compaginación de la prensa diaria". Mexiko: Gili, 1985, 65. or.

³ KÜPPER, Norbert. "Investigación del comportamiento del lector al leer los periódicos". Düsseldorf, 1990, 6. or.


Titularretako laburkinak lehen orrialdeetan



Lehen orrialdean hain zuzen agertzen da kopururik handiena laburkindunetan (orotara 9 dira laburkindunak eta 24 laburkingabeak). Kontutan hartzen badugu Mario Garcia estatubatuarrak dioskuna, lehenbiziko orrialdeak paper nagusia duela kazetako eta bere edukien erakustoki bezala⁴, azkar kontura gaitzke laburkindun titularrak ia heren bat izateak laburkinen egiazko presentzia dakarrela berarekin. Laburkinak titularretan agertzea, beraz, arrunt bihurtu zaigu kazeta-irakurleoi.


Bestalde, eta ondorengo bi diagrametan ikus daitekeen bezala, titularretako laburkinen usutasuna jaitsiz doa barneko orrialdeetan (laburkindunak 97 dira eta laburkingabeak 393), azkeneko orrialdean laburkinak daramatzaten titularren kopurua ehuneko ia hamarrera iristen ez delarik (laburkindunak 5 dira; laburkingabeak, aldiz, 47).

Titularretako laburkinak azken orrialdeetan




⁴ GARCIA, Mario R. "Diseño y remodelación de periódicos". Iruñea: EUNSA, 1984.

Titularretako laburkinak barneko orrialdeetan




Titularretako emaitzak ikusi ostean, gatozen azpitudularretarik ardietsitakoak jartzera. Lehenbizi, aztertutako orrialde guztietakoak doaz. Zebakitan, laburkindunak 19 dira eta laburkingabeak 89:

Titularretako laburkinak ez-errepikatuak orotara




Ikus daitekeenez, portzentaia titularretan erdietsitakoen oso antzekoak dira. Bestalde, lehen orrialdean oso azpitudular gutxi agertzen direnez, portzentaia berdintsu mantentzen da (laburkindun bat bakarra eta 4 laburkingabe):

Titularretako laburkindunak 1. orrialdeetan



Azken orrialdean azpitolarrrik agertzen ez denez gero, barneko orrialdeetako ikustea baino ez da falta (laburkindunak 18 dira; laburkingabeak, aldiz, 109):


Titularretako laburkindunak barneko orrialdeetan



Izan ere, oro har azpitolarrretan lortu nituen portzentaiarik baxuenak.

Albiste-sarrerei dagokienean, lehenbizi, azterturiko sei aleetan orotara 131 aurkitu nituela esan behar dut. Ez lehen orrialdean ezta azkenekoan ere, sarrerarik bat ere ez zegoenez gero, hona hemen barneko orrialdeetako portzentaiak (70 laburkindun eta 61 laburkingabe):

Sarrera laburkindunak orotara



Ikusi ahal denez, oso portzentaia altua agertzen da diagrama honetan, sarrera laburkindunak gabekoak baino gehiago direla adierazten diguna. Gogora dezagun albiste-sarreretan informazio-datu garrantzitsuak agertzen direla eta eragin handia dutela, irakurle anitz beraietan geratzen baitira, albiste-gorputzak irakurtzeke lagatzen dituztelarik.

Beste datu bat, jakin beharrekoa, laburkin errepikatuena da, albiste-sarrera bakoitzeko batz beste zenbat laburkin agertzen diren alegia. Sarrerretako laburkin guztiak 114 izan dira. Honek sarrera bakoitzean 1,6 laburkin daudela adierazten digu.

Infogramei dagokienez, orotara 9 aurkitu ditut, hauetarik 6 laburkindunak zirelarik. Gainera sei infograma hauetan makina bat laburkin agertzen dira (67). Hauteskundeetako emaitzak adierazteko-eta hagitz baliagarriak dira infogramak; kasu hauetan normala denez, laburkin asko ipini beharra dago. Asteko egunak ere laburturik ikusi ditut infograma batean (A: astelehena; A: asteartea...).


Izan ere, kontutan hartzen badugu infografiak gero eta garrantzi gehiago hartu duela kazetetan, infografoek laburkinekin ohitu behar dukete infogramei atarramendu onik atera nahi izatekotan.

Bestalde eta bukatzeko, albiste-gorputzak ditugu, non, normala denez, egunkarietako laburkin gehienak aurkitzen diren. Orotara 662 gorputz laburkindun kausitu ditut, berauetatik laburkingabeak 321 eta laburkindunak 341 izanki.

Laburkinak zenbatzeaz gain, ariketa honek aukera eman dit laburkin desberdinen grafemak nola dauden idatzita ikusteko, baita deklinabidea zuzen dagoenentz jabetzeko ere.


Albiste-gorputzei egokituriko ataleko emaitzak honakoak dira:

Albiste-gorputz laburkindunak orotara




Lehen eta azken orrialdeetan portzentaia hau jaitsi egiten da laburkingabeak gehiago direlarik laburkindunak baino (laburkindunak 36 dira eta laburkingabeak 50). Lehen orrialdeetako albiste-gorputzei dagokienean kopuruak eta portzentaiak honako era honetan geratzen dira: laburkindunak %41,86 (16 orotara) eta laburkingabeak %58,14 (37). Bestalde, azken orrialdeetakoei bagagozkie, honako portzentaiak lortu nituen:

Albiste-gorputz laburkindunak azken orrialdeetan



Argi geratzen denez, joera hau alderantzizkoa da barneko orrialdeetan laburkindunak gehiago direlarik (azken hauek 289 izan ziren eta laburkingabeak 234):

Albiste-gorputz laburkindunak barneko orrialdeetan



Albiste-gorputzei dagokien beste datu aipagarri bat bataz besteko laburkin-kopuruarena da, hau da, albiste bakoitzean bataz beste zenbat laburkin agertzen diren. Orotara 1.491 laburkin zenbatu nituen lehenbiziko, azken eta barneko orrialdeetako albiste-gorputzetan. Beraz, albiste-gorputzeko bataz beste 3,37 laburkin daudela esan dezaket.

Azterketa burutzeko iraganaldiko prentsara jo nuen analisi bera egiteko. Lehenengo unetik konturatu nintzen hitz-laburtzapenak oso bakanka agertzen zirela nik hautatutako euskarazko prentsan. *Eskualduna* Iparraldeko kazetan zein *Herria*-ren lehenbiziko garaian sigla, laburdura eta akronimo gutxi kausitzen dira. Hegoaldeko *Euskal-Erria* aldizkari erdaldunean ere (zeharo erdalduna ez zen arren, lantzean behin euskarazko artikulua eta bertsoak argitaratzen baitzituzten) laburkin gutxi ikus daitezke. Azken hiru hamarkadetan, ostera, euskal kazetak eurrez hornitzen dira laburkinez, batez ere siglak ugalduz.

Beste garai bateko kazetetako laburkinak zenbatzeko asmoz, *Eskualduna*-ren ale zaharrak begiztatu nituen. Zehazki, 1912ko lehen 5 zenbakiak arakatu ostean, sigla bat ere ez zegoela esan behar dut. Siglarik ez baina laburdurak, ostera, bai: **art.** eta **fr.** (libera) baino ez. Geroko garai batean, 1940ko aleetara pasatuz hasi nintzen sigla zenbait ikusten. Aurkitu nituenek puntuak zeramatzaten (P. T. T., D. C. A.). Gainera etsenplu hauetan ikus daitekeenez, letren artean hutsuneak utziz daude idatzita siglok. Oraindik egungo maiztasunera heltzeko asko falta bada ere, prentsa-irakurleak hasiak ziren engoitik ohitzen laburkinak ikusten. Eta horrela ekiten zioten kontrako bideari kazetariak harik eta prentsa garaikidean joera erabat aldatu arte. *Euskaldunon Egunkaria*-n barra-barra agertzen dira laburkinak, ikerketa honetatik ateratzen den ondorio nagusia aipatuz.

LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ / ABSTRACT

Sigla eta akronimoen erabilera eta agertze-maiztasuna euskarazko prentsaren praxian

Kazetarien langintzan hizkuntza bikain menperatu beharrekoa da, mintzaira lantresna baita, kazeta-mezuen eraginkortasuna eta mezularien profesionaltasuna neurtzeko ezinbestekoa. Eta kazetaritza-terminologiari atxikitako esparruak asko diren arren, kazetariei maiz egotzi zaie hizkuntza murrizta erabiltzea, terminoak, kalakak eta klitxeak behin eta berriz aipatzea ikusentzuleriarengan eragin desortoepekua sortzeraino, digresioa

sortuz terminologiaren alor emankorrenak ereinik eduki arren. Tamalez errealitateak horixe erakutsi ohi du eta kazetarientzako hiztegi terminologikoak beharrezkoak dira. Testuinguru honetan artikulua kazetaritza-terminologian barrena abiatzen da beronen parte berezi bat ukitzeko, hitz-laburtzapenena, prezeski.

Mende honetan teknologiaren garapenak, bizitzaren erritmo azkarrak eta termino eta kontzeptuak labur eta arin aurkezteko premiak areagotu egin dute laburkinen (siglen eta akronimoena alegia) erabilera hainbat alorretan: eta non eta kazetaritzan (inprimatuan batez ere) ikus daiteke argiro joera hau. Horrela artikulua muinera heltzen gara: orain zenbait urte egileak egindako tesian agertu zuen eta laburkinen erabileraz izan zen ikerlanera. Euskaldunon Egunkaritik hartutako laginetan egiaztatu ahal izan zuen autoreak laburkinen agertze-maiztasuna eta agertzea bera aski garrantzitsuak direla. Norbert Küpper eta Harold Evans autoreek ematen dituzten aholkuak kontuan hartuta, lehenbizi, ale bakoitzaren atalkatzea burutzen da bi parametro bereiziz: atal *nagusiak* edo informazioari datxezkionak (titularrak, azpititularrak, leadak, albiste-gorputzak eta infogramak) alde batetik, eta egunkariaren gainegiturari dagozkionak bestetik, hots, atal ditugun lehen, azken eta barne orrialdeak. Datu bat aipatzearen, ekar dezadan hona ondokoa: arakaturiko albiste guztietarik erdiak pasatxo (% 51) laburkindunak dira. Portzentaia hori ezin zitekeen inola ere lor beste hamarkada bateko prentsa zaharreak. Beraz, garaikidea den egunkari batetik ateratako datuak antzinakoekin erkatuta, ohartu egingo gara geurea siglen mendea (*el siglo de las siglas*) dela eta termino laburu hauek kazetariak ongi menperatzea ezinbestekoa dela: menperatu erabileran, aspektu grafematikoak, deklinabide alorrekoak eta lexikologikoak aintzat harturik. Hortaz, autoreak aztertu egiten du kazetarientzako estilo-liburuetan zein den araua hitz-laburtzapenak topatuta, erabili behar direnean.

Utilización y frecuencia de siglas y acrónimos en la praxis de la prensa en euskera

En la labor periodística resulta imprescindible un conocimiento profundo de la lengua, porque se trata del instrumento de trabajo indispensable para lograr que el mensaje sea efectivo y medir la profesionalidad del emisor. Pero a pesar de la variedad de ámbitos que abarca la terminología periodística, los periodistas reciben numerosas críticas por utilizar un lenguaje pobre, por abusar de los mismos términos, la misma verborrea y clichés, hasta llegar a producir una influencia desortópica en los lectores, oyentes o televidentes, creando, incluso, digresión aunque las áreas más productivas de la terminología estén bien definidas. La realidad, desgraciadamente, nos demuestra que eso es así, por lo que resulta necesario disponer de diccionarios terminológicos para periodistas. En ese contexto, el artículo se centra en la terminología periodística y trata de una de sus partes específicas, las abreviaciones.

El desarrollo tecnológico, el ritmo de vida acelerado y la necesidad de ofrecer términos y conceptos breve y rápidamente, han producido un aumento de la utilización de abreviaciones (tanto de siglas como de acrónimos) en diferentes ámbitos, tendencia que se manifiesta de una forma muy clara en el periodismo escrito.

Así llegamos al tema principal de este artículo: el estudio de la utilización de abreviaciones que el autor realizó hace algunos años en su tesis. Basándose en las muestras obtenidas en el diario *Euskaldunon Egunkaria*, el autor pudo constatar que el número de abreviaciones y su frecuencia era considerable. Partiendo de las sugerencias de los autores Norbert Küpper y Harold Evans, en primer lugar llevó a cabo una clasificación de cada ejemplar, diferenciando dos parámetros: por un lado se encuentran los *apartados principales*, que son los inherentes a la información (titulares, subtítulos, “lead”s, el cuerpo de la información e infogramas); y, por otra, los correspondientes a la estructura superior del diario, esto es, la página de portada, la última página y las interiores. Sirva de ejemplo el siguiente dato: en más de la mitad (51%) de las noticias analizadas aparecían abreviaciones, porcentaje imposible de imaginar en la prensa de décadas anteriores. Por lo tanto, si comparamos los datos obtenidos del análisis de un diario contemporáneo con los

de la prensa de décadas anteriores, nos daremos cuenta de que vivimos en el siglo de las siglas, y que resulta imprescindible que los periodistas empleen correctamente esos términos abreviados; y al hablar de un empleo correcto nos referimos al aspecto grafemático, declinacional y lexicológico. En ese contexto, el autor analiza las normas de utilización de las abreviaciones, que aparecen en los libros de estilo para periodistas.

Fréquence et utilisation de sigles et d'acronymes dans la praxis du journalisme en euskera

Dans la tâche journalistique une connaissance profonde de la langue est absolument nécessaire, car il s'agit de l'instrument de travail indispensable pour arriver à ce que le message soit effectif et mesurer le professionnalisme de l'émetteur. Mais, malgré la variété de domaines que touche la terminologie journalistique, les journalistes reçoivent de nombreuses critiques parce qu'ils utilisent un langage pauvre, parce qu'ils abusent des mêmes termes, de la même verbosité et des mêmes clichés, jusqu'à arriver à produire une influence désortéopique sur les lecteurs, les auditeurs ou les téléspectateurs, en créant même, une digression bien que les domaines les plus productifs de la terminologie soient bien définies. La réalité, malheureusement, nous montre que cela en est ainsi, et qu'il est donc nécessaire de disposer de dictionnaires terminologiques pour journalistes. Dans ce contexte, l'article est axé sur la terminologie journalistique et aborde une de ses parties spécifiques, les abréviations.

Le développement technologique, le rythme de vie accéléré et le besoin d'offrir des termes et des concepts brièvement et rapidement, ont produit une augmentation de l'utilisation des abréviations (aussi bien des sigles que des acronymes) dans différents domaines, tendance qui se manifeste de façon très claire dans le journalisme écrit.

Ainsi nous arrivons au sujet principal de cet article: l'étude de l'utilisation des abréviations que l'auteur a réalisée il y a quelques années dans sa thèse. En se basant sur les échantillons obtenus dans le journal *Euskaldunon Egunkaria*, l'auteur a pu constater que le nombre d'abréviations et leur fréquence étaient considérable. En partant des suggestions des auteurs Norbert Küpper et Harold Evans, il a réalisé en premier lieu une classification de chaque exemplaire, en distinguant deux paramètres: d'une part se trouvent les sections principales, celles qui sont inhérentes à l'information (titres, sous-titres, "lead"s, le corps de l'information ou infogrammes); et, d'autre part, celles qui correspondent à la structure supérieure du journal, c'est à dire, la page de couverture, la dernière page et les pages intérieures. La donnée suivante servira d'exemple: dans plus de la moitié (51%) des nouvelles analysées il y avait des abréviations, pourcentage impossible à imaginer dans la presse des décades précédentes. Donc, si nous comparons les données obtenues de l'analyse d'un journal contemporain avec celles de la presse des décades antérieures, nous nous rendrons compte que nous vivons dans le siècle des sigles, et qu'il est indispensable que les journalistes emploient correctement ces termes abrégés; et, en parlant d'un emploi correct nous nous rapportons à l'aspect graphématique, déclinaire et lexicologique. Dans ce contexte, l'auteur analyse les normes d'utilisation des abréviations qui apparaissent dans les livres de style pour journalistes.

Abbreviations and acronym's frequency and utilization in the praxis of the Basque journalism

Language must be very well known in journalism, since it is an essential working tool for measuring the efficiency of the journal messages and the professionalism of messengers. And although there are plenty of different fields inside journalistic terminology, very often there has been imputed to journalists that they use a narrowly embodied language, that they always use the same terms, chatters and clichés, up to

provoke a disorthoeptic influence in the audience, causing digression where the most productive terminological fields are already sown. That is what reality unfortunately shows and, therefore, terminological dictionaries for journalists are necessary. This is the context where the article deeps into journalistic terminology, meaning to deal with a specific part of it, abbreviations.

During this century, the development of terminology, the fast way of living and the need to present terms and concepts in a short and quick manner has increased the use of abbreviations (symbols and acronyms) in different fields and it's precisely in journalism (mainly in printed journalism) where we can clearly see this tendency. Thus, we have already reached the main issue of the article: the research about the use of abbreviations exposed by the author some years ago in his thesis. The author could establish by means of samples from Euskaldunon Egunkaria (the newspaper written in Basque), that abbreviations are used very often and in great number. According to the advices given by the authors Norbert Küpper and Harold Evans, first we have to break up every number, distinguishing between two parameters: the main parts or those concerning information on the one hand (headlines, subheadings, leads, news and infograms) and, on the other, those concerning the surface structure of the newspaper, i.e. we distinguish the first, last and inside pages. Should I mention some facts, I would like to make you aware of this very one: a little bit more than half the searched news (51%) contain abbreviations. Such a percentage could not be possible within the old press of any former decade. So, comparing those data obtained from a today's newspaper with those from former times, we will realize that ours is the century of the abbreviations and that it is compulsory for journalists to know those abbreviated terms very well. They have to know how to use them, being aware of graphematic aspects, of those concerning declension and of lexicological aspects as well. The author analyzes, then, the norm given by style handbooks for those who come to find abbreviations and need to use them.